AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSASUN SAILA

5823

AGINDUA, 2024ko abenduaren 3koa, Osasuneko sailburuarena, Osasun Saileko langile bat behin-behineko lanpostutik kentzea xedatzeko dena.

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 30.5 artikuluan ezarritako aurreikuspenak aplikatuz, ondoren zehazten den kargu-uztea sinatzen dut:

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Idoia Inoriza Bustamante andrea Osasun Saileko Erakunde Harremanetarako aholkulari kargutik kentzea (5230 kodea, 4 dotazioa), eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Lanpostu-uzte horrek 2024ko abenduaren 2an izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, bi kasuetan agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 3a.

Osasuneko sailburua,
ALBERTO MARTÍNEZ RUIZ.